

LOTSA “MONUMENTALA”

Ekainaren 6an, ia ezkutuan, Juan de Garay konkistatzailearen omenezko monumentua inauguratu zuten Urduñan. Militar eta esploratzaile hau ezaguna da, besteak beste, Spainiako monarkiaren zerbitzura aritzeagatik Amerikako kolonizazioaren garaian.

1580ko ekainaren 11n Argentinako Buenos Aires hiria “birfundatzea” egotzen diote. Hala, eskualde horretan zeuden jatorrizko herriak okupazioaren indarkeriaren menpe egon ziren, eta Juan de Garay kolonizatzailearen praktika arbuiagarriak jasan zituzten. Horregatik, urtero, jatorrizko herrien aldeko mugimenduek elkarretaratzeak deitzen dituzte, konkistatzailearen irudia gaitzestu, eta jatorrizko komunitatearen erresistentzia aldarrikatzeko.

Gaur egun, mundu osoan ari dira kolonizazioa goratzen duten irudiak ezabatzen. Latinoamerikan, urteak dira kolonizatzaileen estatuak eraisten ari direla; hango gobernuek ere zenbait estatua kendu izan dituzte. Euskal Herrira etorrita, Bilbon, Getxon, Donostian eta Orion, adibidez, eragile eta alderdi politiko batzuek jada eskatu dute kolonialismoarekin lotutako kaleen izenak aldatzea.

Europari begiratzen badiogu, Berlinen badira kale-izendegitik erreferentzia kolonialak edo arrazistik ezabatzeko ekintzak, eta Bruselan ekimen bat abiarazi zuten konnotazio kolonialak dituzten kaleen izenak aldatu, eta emakume esanguratsuen izenak jartzeko.

Baina nondik etorri zaio EAJri Juan de Garay konkistatzailea omentzearen ideia? Bada, urtarrilean, Satlantis enpresa bizkaitarrak *Garai* izeneko satelite bat jaurti zuen espaziora. Satlantisek, sateliteak eta mugak zaintzeko teknologia garatzeaz gain, armagintzaren sektorean dihardu. 2014an sortu zenetik, administrazio publikoek inbertsio handia egin dute enpresa honetan, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere bai, eta Satlantisen sortzaileen artean ministro ohi bat ere badago.

Urduñako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Satlantis enpresak eta Juan de Garayk duten lotura surrealstatik harago, argi dagoena da erabat lekuz kanpo dagoela 2025ean kolonizatzaile bati monumentu bat egitea, eta horretarako 26.000 € baino gehiago gastatzea. (Bide batez, esan beharra daukagu udal-gobernuak ez digula honi buruzko informazio gardenik eman, ez diru-kopuruari buruz ez ordaintzeko moduari buruz).

Zergatik zuritu behar dugu konkistatzaile honen aurpegia? Hau al da urduñarrok nahi duguna? Iraganarekin kritikoak izan behar dugu, orain arte kontatu dena zalantzan jarri, eta historia berrirakurri: azken finean, egia, erreparaziao eta justizia eskatu, besterik ez.

VERGÜENZA MONUMENTAL

El 6 de junio, y de forma casi desapercibida, se inauguró en Orduña el monumento en honor al conquistador Juan de Garay. Este militar y explorador es conocido, entre otros, por estar al servicio de la monarquía española durante la colonización de América.

Se le atribuye la "refundación" de la ciudad argentina de Buenos Aires el 11 de junio de 1580. Así, los pueblos originarios de esta región estuvieron sometidos a la violencia de la ocupación, sufriendo prácticas indeseables por parte del colonizador Juan de Garay. Por ello, todos los años, diferentes movimientos a favor de los pueblos originarios convocan concentraciones para rechazar la imagen del conquistador y reivindicar la resistencia de la comunidad originaria.

Actualmente en diferentes partes del mundo se están eliminando imágenes que ensalzan la colonización. En América Latina, hace algunos años empezaron a derribar estatuas de colonizadores, en ocasiones también a iniciativa de los propios gobiernos. Aquí en Euskal Herria, en municipios como Bilbao, Getxo, Donostia-San Sebastián y Orio, algunos agentes y partidos políticos ya han solicitado cambiar los nombres de calles relacionadas con el colonialismo.

Si miramos a Europa, en Berlín hay acciones para eliminar de su callejero las referencias coloniales o racistas, y en Bruselas pusieron en marcha una iniciativa para sustituir el nombre de las calles con connotaciones coloniales por nombres de mujeres cuya contribución ha sido significativa.

Pero ¿cómo se le ha ocurrido al PNV la idea de homenajear al conquistador Juan de Garay? En enero, la empresa vizcaína Satlantis lanzó un satélite denominado *Garai* al espacio. Satlantis, además de desarrollar satélites y tecnología de vigilancia de fronteras, está también involucrada en el sector armamentístico. Desde su creación en 2014, las administraciones públicas han realizado una importante inversión en esta empresa, incluidos el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia, y entre las personas fundadoras de Satlantis hay una exministra.

Más allá de esta conexión surrealista entre el Ayuntamiento de Orduña, la Diputación Foral de Bizkaia, la empresa Satlantis y Juan de Garay, lo que está claro es que en el 2025 está totalmente fuera de lugar construir un monumento a un colonizador y destinar para ello más de 26.000 €. (Por cierto, el equipo de gobierno no ha sido transparente a la hora de facilitarnos información al respecto, ni sobre la cantidad de dinero destinado, ni sobre la manera en la que se ha pagado).

¿Cuál es la razón para blanquear a este conquistador? ¿Es esto lo que queremos la ciudadanía orduñesa? Tenemos que mostrar una actitud crítica con el pasado, cuestionar el relato contado hasta ahora y releer la historia: en definitiva, solo se trata de pedir verdad, reparación y justicia.